

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 652/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Behin betiko onestea ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketa, Artziniegako udalerrirako egin

Irailaren 2ko 522/2021 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezinaren zergari loturiko Artziniegako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketari, zeina udalerriko plangintzako arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa puntual jasotzeko egin baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 11. artikuluko 4. apartatuan arabera, Arabako Foru Aldundiak entzunaldia eman behar zien zegozkien udalei, gehienez ere hamabost eguneko epean, egoki zeritzotena jakinaraz zezaten.

Artziniegako Udalak alegazio idazki bat aurkeztu zuen. Bertan, zenbait zuzenketa proposatu zituen, eta Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak onetsi egin ditu.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Onestea, honekin batera doazen planoen arabera, ondasun higiezinaren zergari loturiko Artziniegako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketa, zeina udalerriko plangintzako arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa puntual jasotzeko egin baitzen.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruaren tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean jarriko da hamabost egunetz, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Artziniegako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak, 11. artikuluen 5. apartatuan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA